

Bitarako berbak

(Voces anfibológicas)

Azken-aldiko batzuek, erderazko estos, esos eta aquellos esateko, oneek, orreek eta areek asi dira erabilten.

Bizkaia'n zabalzen erabilten diran erak, ostera, bakarrarenak dira: onek, orrek eta arek. «En el (Bizkaiera) —diño Azkue'k, Morfología Vasca, 442 orri.—, se usan los mismos del singular, bien que con distinta entonación. Plurales: onek, orrek» (ek izkiñari beerantz eraginda).

Baiña egoki be egoki da banantzea argitasunaren onerako: era bat, bakarra danean; eta beste era bat, bat baiño geiago diranean. Eta ori ba-dakie egiten Bizkaia'ko erri askok. Zelan egiten dabe, ba? Oneek, orreek eta areek esanda? Bai, baiña gutxiago. Begira, azken-aldiko idazleok, «Erizkizundi Irukoitza»-k agertu eban au:

Estos = onek: 70 erritan

Estos = Oneik: 28 erritan (Bilbo-inguruan, Arratia'n, Zigoitia'n, Gipuzkoa-aldean)

Estos = oneek: 3 erritan (Amoroto'n, Izpazter'en eta Gizaburuaga'n)

Esos = orrek: 69 erritan

Esos = orreik: 28 erritan (aitatu diranetan)

Esos = orreek: 5 erritan (Bolibar'en, Bedarona'n leengo iruretan)

Aquellos = arek: 49 erritan

Aquellos = areik: 28 erritan

Aquellos = areek: 2 erritan (Amoroto'n eta Bolibar'en)

Aquellos = aik: 30 erritan (Txorierri'n Arratia'n, Orozko'n, Zigoitia'n)

Beraz, oneik: 28

orreik: 28

areik: 28

oneek: 3 (iru) orreek: 5 (bost) areek: 2 (bi)

Azkue'k bere iztegian dakarrenez, oneik erri oneitan erabilten da: Arratia'n, Leintza'n (Gatzaga-Salinas de Leniz), Orozko'n eta Otxandio'n. Oneek itza ez dau aitatzen. Arek berban auxe dakar: «Arek (B), areek, areik (B-a(rratia)-ond(arroa)).

Areik erea «Otxolua»-k darabil (Bertolda, 191); mundakarra zan bera. Areek, barriz, Iturzaeta'k (Berbaldiak. 1, 89); au, otxandiarra izan zan.

Ez al-da argi geratzen? Beraz, bizkaieraren batasunerako:

este: onek

ese: orrek

aquek: arek

estos: oneik

esos: orreik

aquellos: areik

Urrengo zenbakian geiago.

KEREXETA

ILLUNABARREAN

*San Anton parrokiko
eliz barrenean
bakardaden naukazu
illunabarrean.*

* * *

*Ixiltasun zoruna
inguru guztian
zeruaren antzera
Jaunaren aurrean.*

* * *

*Argitxo bat agiri
an aurrekaldean
argi txiki bizia
Oteundi alboan.*

* * *

*Begiak itxi ditut
sar gomutaldian
barru dana dodala
siñismengo sutan*

* * *

*Oteundi ate ostean
txabola estuan
Jesus, nire maitea
antxe ikustean.*

* * *

*Goxotasun dardara
nire biotzean
«ortxe zagoz maitea
nire maitasunan».*

* * *

*Zoraturik al zagoz
gizonen artean?
Naiz ta gizon maltzurak
bartzertu munduan?*

* * *

*Zer ikusten dozula
gizon biotzetan
beragaz biziteko
erbeste onetan?*

* * *

*Zuri begira nago
emen Zure aurrean
Zugaz gogoratzean
zorabio bakan.*

GALLASTEGI'k